# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 4681

230/1996 DEKRETUA, irailaren 24koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezartzetik Euskal Autonomi Elkartearen eremuan sortutako unibertsitateaz kanpoko herri ikastetxeen berrantolakuntzarako Dekretuaren aldaketarako dena.

Maiatzaren 7ko 100/1996 Dekretuaren bidez urtarrilaren 30eko 26/1996 Dekretuz herri ikastetxeetan egindako berrantolakuntza aldatu egin zen eta Azpeitiko Ikastola–Karmelo Etxegarai C.P./H.I. Ikastetxea Ikastetxeen Sare Publikoa osatzen duen ikastetxe bezala sartu zen, Urola Kostako 24 eskola–barrutia eta E.P./L.H. etapa Azpeitiko udalerrian.

Ikastetxeen oinarrizko birbanaketa eskola–barruti bakoitzaren barruan hezkuntza maila desberdinetan ondorengo irizpide hauei lotu zaie: eskola–biztanleriari, baliabideen zentzuzko ustiapenari eta gizarte–eskeari.

C.P./H.I. Azpeitiko Ikastola–Karmelo Etxegarai delakoa Ikastetxeen Sare Publikoan sartzearen ondorioz eta ikastetxeen birbanaketarako aipatutako irizpide horiei so eginez, Euskal Autonomi Elkarteko eremuan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako herri ikastetxeak berrantolatzeko urtarrilaren 30eko 26/1996 Dekretua aldatuz, Urola–Kosta eskola–barrutiko ikastetxeak berrantolatzea da bidezkoa.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzako Kontseiluak 1996ko irailaren 24an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Urtarrilaren 30eko 26/1996 Dekretuaren II. A eraskinean Azpeitiko udalerriko C.P./H.I. Azpeitiko Ikastola–Karmelo Etxegarai delakoaren integrazio jardunbidean C.P./H.I. Berdelari sartzea.

*2. atala.*– Urtarrilaren 30eko 26/1996 Dekretuaren IV. eraskinean ez du agertu behar Axpeitiko C.P./H.I. Berdelarik.

*3. atala.*– Urtarrilaren 30eko 26/1996 Dekretuaren V. eraskinean Urola Erdialdeko Bigarren mailako ibilbidea aldatzea, ibilbide hori dekretu honen eraskinean zehazten den modura geratzen dela.

Vitoria–Gasteizen , 1996ko irailaren 24an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 4681

DECRETO 230/1996, de 24 de septiembre, de modificación del Decreto de reordenación de centros docentes públicos de enseñanza no universitaria en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, derivada de la implantación de la Educación Secundaria Obligatoria.

Mediante el Decreto 100/1996 de 7 de mayo, se modificó la reordenación efectuada en los centros docentes públicos por el Decreto 26/1996, de 30 de enero, procediendo a incluir como centro integrante de la Red Pública de Centros Docentes el Centro C.P./H.I. Azpeitiko Ikastola-Karmelo Etxegarai, circunscripción escolar 24 Urola Costa y etapa E.P./L.H. en el municipio de Azpeitia.

La redistribución básica de los Centros en los diferentes niveles educativos dentro de cada circunscripción escolar se ha atenido a los siguientes criterios: población escolar, aprovechamiento racional de los recursos y demanda social.

Como consecuencia de la inclusión en la Red Pública de Centros Docentes del C.P./H.I. Azpeitiko Ikastola-Karmelo Etxegarai, y atendiendo a los criterios mencionados de redistribución de centros, procede la reordenación de los centros de la circunscripción escolar Urola-Costa modificando el Decreto 26/1996, de 30 de enero de reordenación de los centros docentes públicos de enseñanza no universitaria en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 24 de septiembre de 1996,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– En el Anexo II A del Decreto 26/1996 de 30 de enero, incluir el proceso de integración del C.P./H.I. Berdelari en el C.P./H.I. Azpeitiko Ikastola-Karmelo Etxegarai del municipio de Azpeitia.

*Artículo 2.*– En el Anexo IV del Decreto 26/1996 de 30 de enero, no debe aparecer el C.P./H.I. Berdelari de Azpeitia.

*Artículo 3.*– Modificar en el Anexo V del Decreto 26/1996 de 30 de enero, el itinerario de la zona de Secundaria de Urola Medio quedando éste como se especifica en el Anexo a este Decreto.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de septiembre de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación,
Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU

ERASKINA / ANEXO

EUSKADIKO ESKOLA MAPA / MAPA ESCOLAR DE EUSKADI

UROLA ERDIALDEKO zonaldeko behin betiko ibilbideak / itinerarios definitivos en la zona de UROLA MEDIO




(*) Ikastetxe honek, Zestoako HERRI ESKOLAn, DBHko zerbait gela kokatuko ditu 96-97 ikasturtean.

Municipios de la Zona / Zonaldeko udalerriak

| | |
|---|---|
| Azkoitia | Errezil |
| Azpeitia | Beizama |
| | Zestoa |